

**UPV/EHUko GARAPENERAKO
LANKIDETZA BULEGOAREN
MEMORIA**

Curso 2013/14 ikasturtea

1. AURKEZPENA

Gaur egungo mundu globalizatuan gero eta konplexuagoak dira garapenaren eta lankidetzaren arloko arazoak, eta unibertsitateak badu erantzukizunik arlo horretan, unibertsitatea ikerketarako eta zabalkunderako gune izanik munduko leku guztietako gizakion garapenaren arloan eragiten duten arazoak aztertze bidea baitauka. Horrez gain, bere erantzukizun garrantzitsuetako bat da etorkizuneko belaunaldiei prestakuntza ematea gizarteko arazoak eztabaidatzeko guneetan parte hartu dezaten berdintasuna, jasangarritasuna eta giza eskubideak oinarri hartuta.

Erantzukizun hori oinarri hartuta, Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Legean (apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoak aldaraziak), hitzaurrean, jasota ageri da unibertsitatea oinarritzko balioen igorle izan behar dela, eta dio, era berean, unibertsitateak berariaz zaindu behar dituela herrien arteko elkarrizketa, bakea eta lankidetzak. 92. artikulua nazioarteko lankidetzak eta elkartasunari buruzkoa da, eta zehaztuta dago **unibertsitateak beren kideak nazioarteko eta lankidetzako jarduerak eta proiektuetan parte hartzera bultzatuko dituela**. Eta, era berean, bakean, garapen jasangarrian eta ingurugiroa zaintzeko kultura sustatuko duten jarduerak eta ekimenak babestuko dituela, kultura hori ezinbestekoa baita elkartasunean oinarritutako garapenerako.

Bestalde, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Estatutuetan, lehenengo tituluan, UPV/EHUren izaera eta helburuei buruzkoan, jasota dago unibertsitateak nazioarteko trukeen eta lankidetzaren alde egingo duela, eta aipamen berezia dauka garapenerako lankidetzak. Garapenaren aldeko unibertsitate lankidetzak ekimenean parte hartzen duten kideen aberasgarri da, bai pertsona moduan bai arlo akademikoan ere, eta, era berean, unibertsitatearen beraren aberasgarri ere bada. Horrela, bada, UPV/EHUK, Gobernu Kontseiluak 2007ko otsailaren 8an egindako bileran, Espainiako unibertsitateek garapenerako lankidetzaren inguruan egindako (jokabide-kodearekin bat egitea onartu zuen (kodea Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Batzarraren (EUEB) Nazioarteko Harremanetako Espainiako Unibertsitate Batzordeak onartu zuen).

Garapenerako Lankidetzak Bulegoa, Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzari atxikita dagoena, UPV/EHU sortutako zerbitzu bat da, *garapenerako unibertsitate lankidetzak sustatzeko*; hau da, unibertsitateko kideek lankidetzaren helburu diren gizarteetako eta euren gizarteko gaitasunak – bereziki unibertsitatearen eta hezkuntzaren sektoreetakoak – indartzeko egiten duten lan solidarioa sustatzeko. Zehazkiago, bulegoaren helburua da unibertsitateko sektore desberdinek garapenerako lankidetzaren arloan egiten duten lana koordinatzea, bultzatzea eta bideratzea.

2. HELBURU OROKORRAK

- Garapenerako lankidetza eta hezkuntza unibertsitatearen gizarte eginkizunean txertatzea.
- Elkartasun balio unibertsitatean oinarritutako prestakuntza sustatzea, eta gizarte arazoei buruzko eztabaidetan parte hartzea, zuzentasuna, jasagarritasuna eta giza eskubideen errespetua oinarri hartuta.
- Munduko hainbat lekutan gizakiaren garapena baldintzatzen duten era askotako arazoak ezagutzea, ikertzea eta hedatzea bultzatzea, unibertsitateko kideak arazo horietaz jabetu daitezen.
- Garapenerako lankidetzaren eta hezkuntzaren zerbitzura giza baliabide espezializatuak jartzea, eta beste erakunde eta gizarte eragile batzuekin batera, lankidetzarako proiektu eta programak abian jartzeko zereginean parte hartzea.
- Elkartasun aktiboa eta boluntario lana indartzea unibertsitateko kideen artean, ikasleen artean batik bat, eta haien boluntario lana erraztea esparru espezifiko batean, programa bereziak martxan jarritz edo ikasleak beste erakunde batzuetara bideratuz.

3. UPV/EHUko GARAPENERAKO LANKIDETZA BULEGOA

Garapenerako Lankidetza Bulegoa, Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzari atxikita dagoena, UPV/EHU sortutako zerbitzu bat da, *garapenerako unibertsitate lankidetza sustatzeko*; hau da, unibertsitateko kideek lankidetzaren helburu diren gizarteetako eta euren gizarteko gaitasunak – bereziki unibertsitatearen eta hezkuntzaren sektoreetakoak – indartzeko egiten duten lan solidarioa sustatzeko. Zehazkiago, bulegoaren helburua da unibertsitateko sektore desberdinek garapenerako lankidetzaren arloan egiten duten lana koordinatzea, bultzatzea eta bideratzea.

UPV/EHUko Garapenerako Lankidetza Bulegoak hainbat jarduera burutzen ditu garapenerako unibertsitate lankidetzaren hainbat esparrutan. Garrantzitsuenen artean, honako hauek:

3.1.- Beste erakunde batzuekin batera garapenerako lankidetza bultzatzeko hitzarmenak sustatzea.

Azken urteotan hainbat hitzarmen sinatu dira garapenerako lankidetzan lanean ari diren unibertsitate eta erakundeekin. Hitzarmen horiek xede nagusi dute zabalkunde programetako parte hartzea bultzatzea eta irakaskuntzaren, prestakuntzaren eta ikerketaren arloan trukeak eta lankidetza sustatzea.

2013/14 ikasturtean ondoko hitzarmenak bideratu ziren UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoan:

Beste administrazio publiko batzuekin egindako hitzarmenak:

- Lankidetzaren hitzarmena, Arabako Foru Aldundiaren eta UPV/EHUren Arabako Campusaren artekoa, "Fortalecimiento del sistema de educación intercultural bilingüe en Ecuador" proiektuan laguntza emateko.
- Lankidetzaren hitzarmena, Gasteizko Udalaren eta UPV/EHUren artekoa, Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskolaren eta Gasteizko Irakasleen Eskolaren 2013/14 ikasturteko lankidetzaren monografikoak kofinantzatzeke.
- Lankidetzaren hitzarmena, EUSKAL EUSKAL FONDOA-ASOCIACIÓN DE ENTIDADES LOCALES VASCAS COOPERANTES erakundearen eta UPV/EHUren artekoa, UPV/EHUko garapenerako lankidetzaren oinarri duten praktika eta gradu amaierako lanak bultzatzeko.

Gizarte erakundeekin egindako hitzarmenak:

Hitzarmenak Euskadiko hainbat GGKEekin, eta horien bidez praktikatuko programak eta gradu amaierako lanak sendotu ahal izan dira:

UPV/EHUko IKASTEGIA	ERAKUNDEA
Ingeniaritza GET (Bi)	ISF País Vasco
Irakasleen UE (BI)	SERSO San Viator Euskal Herria
	Nazioarteko Elkartasuna-Solidaridad Internacional
	Haurralde Fundazioa
	Asociación Africanista Manuel Iradier
Irakasleen UE (DO)	Fundación Etiopia Utopia
	Haurralde Fundazioa
UE Politeknikoa (DO)	Asociación Desarrollo Compatible
	ICLI(GASTEIZ)
Erizaintzako UE (DO)	Medicus Mundi Gipuzkoa
Filosofia eta Hezkuntza Zientzien F	Activas/os por un Mundo Solidario
	Bidez Bide Gizarte Sustapenerako Kultur Arteko Elkartea
Farmazia F.	Haurralde Fundazioa
Gizarte Langintzako EU	Pies por la Tierra
	Haurralde Fundazioa

Programa horren barruan, **beste herrialde batzuetako** erakundeekin ere sinatu dira hitzarmenak.

UPV/EHUko IKASTEGIA	ERAKUNDEA
Gizarte Langintzako UE	Fundación Escuela de Gerencia Comunitaria (Venezuela)
	Alcaldía de Nejapa (El Salvador)
Irakasleen UE (BI)	Fundación Mahatma Gandhi (Dominikar Errep.)

2013/14 ikasturtean Euskal Herriko zenbait erakunderekin ere sinatu dira hitzarmenak gure ikasleak boluntario lanetan hartzeko: **OSALDE; KCD - KULTURA, COMMUNICATION Y DESARROLLO ONGD; ASOCIACIÓN LOIZAGA; BERAKAH; HAURRALDE FUNDAZIOA; ERREKALDEBERRIKO ESKAUTAK; ATZEGI; ASOCIACION DE TIEMPO LIBRE NUESTRO CLUB; ELIZALDE ESKAUT TALDEA; ASPANOVAS BIZKAIA; CIUDADANOS DEL MUNDO POR LA PAZ Y EL DESARROLLO; FUNDACIÓN ETORKINTZA ELKARGOA; SORTARAZI.**

3.2.- Laguntza deialdiak Unibertsitatearen Lankidetzaren Garapenerako Proiektuetarako

Deialdiaren helburua da UPV/EHUko komunitateak giza garapen txikiagoa duten herrialdeetako biztanleen bizimodua eta prestakuntza hobetzen laguntzen duten garapenerako lankidetzako proiektu edo ekintzetan parte-hartzea, bai eta unibertsitate komunitatearen baitan kontzientzia kritikoa eta gizarte eraldaketarako ekintzekiko solidaritatezko konpromisoa sortzea ere. Horrela, UPV/EHUk laguntzak ematen ditu unibertsitateko kideek bideratutako garapeneraren arloko lankidetzako proiektuak finantzatzeko, zati baten edo osorik. Proiektuok ondoko alorretakoak izan daitezke: irakaskuntza eta prestakuntza; garapenerako ikerketa; informazioaren, ezagutzaren eta teknologiaren transferentzia; garapen bidean dauden herrialdeetako unibertsitateak sendotzea; garapenerako hezkuntza.

2013/14 ikasturtean mota horretako bi deialdi egin dira: Lehenengoa, Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzak 2013ko azaroaren 27an emandako erabakiaren bidez, eta, bigarrena, 2014ko otsailaren 28ko erabakiaren bidez. Deialdi bakoitzerako 30.000 euroko zuzkidura egon da, eta proiektu bakoitzerako 15.000 euro eman dira.

Ikasturte honetako berrikuntza izan da Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak unibertsitateko garapenerako lankidetzaren arloko hiru prestakuntza ikastaro antolatu dituela, bat UPV/EHUko campus bakoitzerako. Horrez gain, bi deialdiotan laguntza espezializatua eman dugu eskariak betetzeko. Bi ekintzen horien bidez, gure unibertsitateko AZPk langileek eta irakasleek aukera izan dute deialdi horietan parte hartzeko nahiz eta esperientziarik izan ez garapenerako lankidetzan.

Laguntzak era honetara banatu ziren:

2013ko azaroaren 27ko deialdia:

2013/14ko proiektuak	Arduraduna	Emandako laguntza
Proiektuaren izenburua		
Fortalecimiento de las capacidades de diagnóstico medioambiental del Profesorado y alumnado de la escuela de ingeniería en gestión ambiental de la Pontificia Universidad Católica del Ecuador sede Esmeraldas (Pucese) orientados a la mejora de los proyectos de investigación y vinculación con las comunidades de la zona norte de Esmeraldas.	DANIEL ZUAZAGOITIA REY-BALTAR (Zientzia eta Teknologia Fak. Kimika Analitikoa Saila)	15.000 €
Consolidación del programa de Trabajos Fin de Grado en Cooperación para el Desarrollo en la UPV/EHU-fase III, curso 2013/2014	Monica Oyarzabal (Ingeniería Sin Fronteras País Vasco - Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza)	14.972 €

2014ko otsailaren 28ko deialdia:

2013/14ko proiektuak	Arduraduna	Emandako laguntza
Proiektuaren izenburua		
Fortalecimiento de las capacidades de diagnóstico medioambiental del profesorado y alumnado de la escuela de ingeniería en gestión ambiental de la Pontificia Universidad Católica del Ecuador sede Esmeraldas (Pucese) orientados a la mejora de los proyectos de investigación y vinculación con las comunidades de la zona norte de Esmeraldas. FASE II	DANIEL ZUAZAGOITIA REY-BALTAR (Zientzia eta Teknologia Fak. Kimika Analitikoa Saila)	15.000 €
Docencia del "Módulo de Bacteriología" en la Maestría de Microbiología Clínica de la Universidad Mayor de San Simón en Cochabamba, Bolivia	LUCÍA GALLEGO ANDRÉS Medikuntza F./ Immunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia Saila	1.500€
Colaboración interuniversitaria- sociedad para la puesta en valor de los ecosistemas de las Reservas de la Biosfera de Jaragua-Bahoruco-Enriquillo (Dominicana) y La Selle (Haití) para la mejora de la calidad de vida de la población local	UPV/EHUko UNESCO Katedra, Garapen Jasangarri eta Ingurugiro Hezkuntzari buruzkoa	13.500€

3.3.- Garapenerako lankidetzak eta hezkuntzari buruzko jardunaldiak eta jarduerak, unibertsitateko kideei zuzendutakoak

Garapenerako Lankidetzak Bulegoak bere eginkizun nagusien artean ditu unibertsitateko kideei (AZP, irakasle, ikertzaile eta ikasleei) zuzendutako zabalkunde eta sentsibilizazio jarduerak, horien bidez Hegoaldeko herrialdeen errealitatearen berri emateko, eta, era berean, gure gizartean, "garatutako herrialde" deitutakoetan, egin beharreko aldaketak aztertzea, Hegoalde-Iparralde harremanen oinarri errespetua, berdintasuna, ekitatea eta justizia izan dadin.

2013/14 ikasturtean, Garapenerako Lankidetzak Bulegoak UPV/EHU antolatutako hiru ekitalditan hartu zuen parte.

- *Unibertsitatearen eta Gizarte Mugimenduen arteko I. Lan Topaketa, GGKEko koordinatzailearekin lankidetzan; 2014ko urtarrilaren 22an izan ziren Donostiako Enpresa Ikasketen UEn.*
- *Unibertsitatearen eta Gizarte Mugimenduen arteko II. Lan Topaketa, GGKEko koordinatzailearekin lankidetzan; 2014ko ekainaren 19an izan ziren Donostiako UE Politeknikoan.*
- Unibertsitateen eta Gizarte Mugimenduen arteko aliantzei buruzko jardunaldia elikadura subiranotasunaren alde. Hegoa Institutuak antolatua; 2014ko maiatzaren 9an egin ziren Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean.

Horrez gain, Garapenerako Lankidetzak Bulegoak, 2013/14 ikasturtean eta beste erakunde batzuekin batera, unibertsitateko kideei zuzendutako ondoko sentsibilizazio jardueretan hartu zuen parte:

JARDUERA	JARDUERA MOTA	ERAKUNDE LANKIDEA
Mugikor zaharra biltzea	ELKARTASUNEN KANPAINA	COOPERA ONGD
LIBURUAREN ARGITALPENA: "Presente y Futuro de Colombia en tiempos de Esperanza" del alumno de la UPV/EHU Jorge Freyter Florian.	EDICIÓN LITERARIA	UPV/EHUko IKASLEAK ETA IRARASLEAK
BASERRITIK PLAZARA. ELKARTASUNEN KANPAINA	ELKARTASUNEN KANPAINA	BIZILUR
BOLUNTARIOTZA TOPAKETA (UNIKIDE PROGRAMAKO)	ELKARTASUNEN KANPAINA	BOLUNTA
ELKARTASUNEN KANPAINA, UPV/EHUko IKASLEAK	ELKARTASUNEN KANPAINA	UPV/EHUko IKASLEAK
ELIKAGAIEN BILKETA BIZKAIKO CAMPUSEAN	ELKARTASUNEN KANPAINA	ELIKAGAIEN BANKUA
UDA SOLIDARIOA KANPAINA	ELKARTASUNEN KANPAINA	BOLUNTA
EL TALLER DE VIDEO DEL MINUTO. MUJERES EN CORRESPONDENCIA	UDA IKASTAROA	KCD
MUESTRA ENTRE CINEASTAS. CARABANA DE MUJERES ÁRABES-IBEROAMERICANAS.	UDA IKASTAROA	KCD
II EDICIÓN DEL FESTIVAL DE CINE INVISIBLE SPRESS	ZINEMALDIA/LEHIAKETA	KCD

3.4. Aholkularitza tekniko irakasle eta ikertzaileei, AZPkoei eta ikasle organizazioei

Bulegoak laguntza ematen die unibertsitateko kideei lankidetzaren proiektuetarako, bai proiektuen metodologia eta jarraipenerako, bai kanpoko laguntzak bilatzeko. Horrez gain, proiektu eta jardueretarako laguntzen deialdian proposamenak aurkeztu nahi dituzten unibertsitateko ia kide guztiek erabiltzen dute aholkularitza teknikoko zerbitzua.

Bulegoak deialdi horretarako ez ezik, beste erakunde batzuetako deialdietarako ere ematen du laguntza, proposamenak egiteko beharrezko diren ezagutzak eta gaitasunak bideratuz.

2013/14 ikasturtean gestionatutako proiektuen laburpena

DEIALDIA	PROIEKTUA	ARDURADUNA	LAGUNTZA
OFICOP Proyectos CUD 2013-14	Indartzea ingurugiro diagnosis egiteko gaitasuna, Esmerlada eskualdeko ipar aldeko komunitateekin zerikusia daukaten ikerketa proiektuak hobetzeko. Nori zuzendua: Ekuadorreko Unibertsitate Katoliko Pontifizioko (Esmeraldako egoitza –Puceses) ingeniari eta eskolako irakasle eta ikasleei	DANIEL ZUAZAGOITIA REY-BALTAR	15.000 €
OFICOP Proyectos CUD 2013-14	UPV/EHU garapenerako lankidetzaren oinarri duten praktika eta gradu amaierako lanak indartzea – III. fasea, 2013/14 ikasturtea.	Monica Oyarzabal (Ingenieria Sin Fronteras Pais Vasco - Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza)	14.972 €
FOCAD	Cooperación para un nuevo modelo energético: La transición democrática de la deuda ecológica al buen vivir. Tradebu	Iñaki Barcena	174.845,03 €
ALFA	VINCULAENTORNO	MARIAN IRIARTE	1.120.000 €
Hitzarmena, UPV/EHU eta Arabako Foru Aldundiaren artekoa	Hezkuntza sistema elebiduna indartzea Ekuadorren III	Juanjo Celorio	30.000€
Estancias de movilidad. Programa Hispano Brasileño	Brasiliako Unibertsitatea	Gustavo Fernandez	10.000€ g.g.b.

3.5.- UPV/EHUko ikasleentzako ikastaro monografikoak, garapenerako lankidetzaren arlokoak

Garapenaren eta lankidetzaren arloko arazoak gero eta konplexuagoak dira, eta testuingurua hori izanik, ukaezina da unibertsitateak baduela erantzukizunik munduko gizakien garapena baldintzatzen duten arazo ugari berri zabaltzeko lanean. Horrez gain, unibertsitatearen helburu nagusia prestakuntza izanik, bere eginkizunetako bat da etorkizuneko belaunaldiei prestakuntza ematea gizarteko arazoak eztabaidatzeko guneetan parte hartu dezaten berdintasuna, jasangarritasuna eta giza eskubideak oinarri hartuta. Horiek horrela, 2004tik aurrera, UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegok UPV/EHUko zenbait ikastegirekin, Hegoa Institutuarekin eta Euskal Herriko GGKE-ekin elkarlanean, garapenari eta lankidetzari buruzko 10 ikastaro monografiko antolatzen ditu urtero. Urte hauetan, bada, 75 ikastaro antolatu ditugu UPV/EHUko hiru campusetan.

Ikastaro horien bidez UPV/EHUko ikasleek aukera dute hainbat eta hainbat lan jorratzeko asko eta ugariak baitira ikastarootan lantzen diren gaiak: ingurugiro hezkuntza, elikagaien segurtasuna, genero ikuspegia, partaidetza demokratikoa eta pertsonen politika segurtasuna, garapenari lotutako arlo teknologikoak, osasuna, giza eskubideen arloko arazoak, hazkunde ekonomikorako baldintza desiragarriak, finantzen arloko arazoak, merkatuen globalizazioa eta abar.

Ikasturtea hasi aurretik, ikastaro monografikoen batzordeak bilera egiten du ikasturte horretan hiru campusetan emango diren 10 ikastaro monografikoen programak zehazteko.

Ikastaro horietako bakoitzak 50 orduko iraupena dauka eta, beraz, aukera askeko 2 kreditu ematen dira graduko ikasketetan (ikasgelako 20 ordu + 30 ordu hitzaldi eta mintegietan eta lanak egiteko). Ikasgelako 20 orduak era honetara banatzen dira:

- Parte orokorra, batzordeak ikastaro guztietarako zehazten duena (6 ordu)

- Parte espezifikoa, ikastaroak oinarri duen titulazioarekin edo arloarekin lotutakoa; ikastaroko zuzendariak zehazten du (14 ordu)

Beraz, ikastaroen edukiak kasuan kasuko ikastegian ematen diren titulazioetara egokitzen dira (Farmazia F, Irakasleen UE, UE Politeknikoa, Ingeniaritza UE, Gizarte Langintzako UE, Komunikazio Zientzien F., Filosofia eta Hezkuntza Zientzien F., Psikologia F., Enpresa eta Ekonomia Zientzien F.).

Irakasle gehienak UPV/EHUkoak dira, baina Euskal Herriko GGKE-etakoak eta hitzartutako unibertsitate elkarteetakoak ere ematen dituzte eskolak. Ondoko GGKE-k hartu dute, adibidez, parte ikastaroetan: Economistas Sin Fronteras, Mugarik Gabe, Haurralde Fundazioa, Circulo Solidario, RCD, Medicus Mundi-Gipuzkoa edo ISF (Ingeniería Sin Fronteras).

Ezinbesteko da ikastaro monografikoa egitea Practicum edo Gradu Amaierako Lana garapenerako lankidetzaren arloan egiteko, eta oso gomendagarria da UPV/EHUK antolatutako lankidetzaren proiektuetan boluntario aritzeko. Garapenerako Lankidetzaren Bulegoren ustez, horrelako proiektuetan parte hartzeko beharrezkoa da gutxienezko prestakuntza bat izatea.

2013/14 ikasturtean, **12 ikastaro monografiko** antolatu ziren, hain zuzen ere ondokoak:

UPV/EHUko IKASTARO MONOGRAFIKOAK (2013/14) PARTAIDEAK					
Bizkaiko Campusa			Guzti ra	Emaku mezko ak	Gizonez koa
Introducción a la Cooperación y Tecnología para el Desarrollo Humano	Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE	2013/10/2-23	15	8	7
Cooperación y educación para el desarrollo	Irakasleen UE	2014/03/24-04/02	24	22	2
Retos actuales del Desarrollo y la Cooperación en la Economía Global	Enpresa eta Ekonomia Zientzien F.	2014/01/31-02/28	31	14	17
GIPUZKOAKO CAMPUSA					
Introducción a la cooperación para el desarrollo	Psicologia F	2013/10/18-25	14	14	0
Cooperación solidaria para el desarrollo	Hezkuntza Zientzien F	2013/10/21-30	15	12	3
Introducción a la Cooperación y Tecnología para el Desarrollo Humano	Aulario Jose María Barriola (UPV/EHU Donostia)	2014/02/07-03/21	27	14	13
Hezkuntza eta lankidetzaren garapenean kurtso monografikoa	Irakasleen UE	2014/02/25-03/05	38	35	3
Construyendo una Economía Justa	Donostiako Enpresa Ikasketen Ue	2013/10/07-12/12	30	18	12
ARABAKO CAMPUSA					
Desarrollo y cooperación solidaria	Gizarte Langintzako UE	2013/09/30-11/25	21	19	2
Cooperación solidaria para el desarrollo	Irakasleen UE	2013/10/10 – 2014/05/09	22	16	6
Introducción a la cooperación sanitaria y nutricional	Farmazia F	2013/09/23-10/01	54	49	5
Introducción a la Cooperación y Tecnología para el Desarrollo Humano	Elurretako Liburutegia – UPV/EHU-GASTEIZ	2014/03/06-04/10	18	11	7
GUZTIRA			309	232	77

3.6.- Laguntza deialdia garapenerako lankidetzaren arloan unibertsitate praktikak eta Gradu Amaierako Lana egiteko

Garapenerako lankidetzaren proiektuetan praktikak egiteko programak (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak 2003ko maiatzaren 13an onartua) aukera ematen dio ikasleari nahitaezko praktikak eta gradu amaierako lana garapen bidean dauden herrialdeetan lankidetzaren programak garatzen dituzten erakundeekin egiteko, eta esperientzia hori prestakuntzan parte bezala sartzeko.

Unibertsitatearen misioa da munduan diren aldean kontzientzia daukaten profesional prestatzea eta gai direnak gizartearen aurrerapenean eragina daukaten arazoengatik inguruko eztabaidetan partezko; eta, hain zuzen ere, misio hori izan zen 2003-04 ikasturtean programa hori abian jartzeko oinarri. Bestalde, UPV/EHUK berak hartzen ditu bere gain mota horretako praktikak eta bermatzen du jasagarriak direla eta hezkuntzan daukan eragina. Programak ondoko printzipioak ditu oinarri:

a) Garapenerako proiektuetan egiten diren praktikek prestakuntzari egiten dioten ekarpen handia aitortzen du: ikasleak hobetu egiten du prestakuntza akademikoa eta profesionala, esperientzia horren bidez osatu egiten baitu prestakuntza ikuspegi berrien bidez eta aukera ematen diote gaitasun berriak garatzeko.

b) Ikaslea garapenerako lankidetzaren arloan oso motibatuta egotea eskatzen du: baliabide gabeziak eta zailtasun handienak dituzten gizartei eta gurearekin alde gero eta handiagoa daukatenetan laguntza emateko nahia gailendu behar zaio praktika interesgarri eta aberasgarriak egiteari. Bai maila pertsonalean, bai profesionalean.

c) UPV/EHUren eta garapenerako lankidetzaren erakundearen arteko lan bateratua bultzatzen du, horren bidez praktikak arrakastatsuak izango direla eta unibertsitateko kideak sentsibilizatzeko zeregina eraginkorra izango dela bermatzeko.

Programa honetarako 750 euro daude, ikasleen bidaietarako eta aseguruetarako laguntzak emateko. Diru hori EUSKALFONDOAK UPV/EHUri emandako ekarpenetatik lortzen da, bai eta ikasleen %0,7 fondotik ere (matrikulan bidez fondo horri egindako ekarpenak).

Horren guztiaren bidez, ondoko jarduerak bultzatu nahi dira:

A) GARAPENERAKO LANKIDETZAREN ALORREKO UNIBERTSITATE-PRAKTIKAK garatzeko bidean dauden herrialdeetan 2014/2015 ikasturtean. Praktika hauen helburuak dira ikasleek euren prestakuntza akademikoan jasotako elementu teoriko eta praktikoak bateratzea eta errealitate soziala ebaluatu eta gizarte aldatzeko estrategiak planifikatzeko duten gaitasuna indartzea, era berean euren prestakuntzak ematen dizkien funtzio profesionaletatik gizarte arazoengatik prebentzioa, murrizketa edo konponbideari helduz.

B) GRADU AMAIERAKO LANAK garapeneraren eta/edo lankidetzaren alorrean egitea 2014/2015 ikasturtean. Proiektu hauen helburua da UPV/EHUko unibertsitate-eskola eta Fakultateko ikasleek Graduan jasotako ezagutzak GGKEek eta lankidetzaren erakundeek planteatutako "arazo teknikoak" konpontzeko erabiltzea, era honetako gradu amaierako lanak eginez: teknologia egokien prototipoak; giza garapenerako teknologiei buruzko azterketak; garapenerako lankidetzaren edo laguntza humanitarioaren alorreko programa eta proiektuetan integratutako proiektuak.

3.7.1.- Programaren faseak eta ekintzak

Fasea	Ekintza	Helburua	Egutegia
-------	---------	----------	----------

Ikasleak eta GGKEak harremanetan jartzea	<ul style="list-style-type: none"> - Ikastegietan programa zabaltzea. - Ikastegietan GGKEak aurkeztea 	Programan parte hartu nahi duten ikasleak eta GGKEak identifikatzea	Apirila
Praktiketarako eta gradu amaierako lanetarako laguntzen deialdia	<ul style="list-style-type: none"> - Deialdiaren berri ematea eta deialdia ebaztea - Hitzarmena sinatzea ikastegiak eta GGKEak - Ikastegian jarraipen batzordea eratzea 	Laguntzak banatzea irizpide objektiboak oinarri hartuta	Maiatza-ekaina
GGKEetan ikasleei prestakuntza ematea eta lankidetzan aritzea	<ul style="list-style-type: none"> - Tutoreak eta begiraleak izendatzea - GGKEen praktika plana zehaztea eta prestakuntzako plana - Lankidetzan eta prestakuntza planean adostutako jarduerak egiten dira (Jarduera horietan ikastaro monografikoak sartzen dira). - GGKEek ikaslearen ebaluazio txostena egiten du 	Praktiketarako ikasle egokiak aukeratzea	Urrian hasi eta tokira bertara bidaiatu arte
Praktikak egitea, jarraipena eta ebaluazioa	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasleak praktikak egiten ditu garapen bidean dagoen herrialdean - Tokiko begiraleak praktiken jarraipena egiten du eta txostenak bidaltzen ditu - Parte hartzen duten eragileek praktiken ebaluazioa egiten dute. 	Praktikak egitea eta arrakasta bermatzea	Urtarriletik irailera

3.7.2.- Programaren bilakaera eta emaitzak

Adierazleen arabera, agerikoa da Praktika eta Gradu Amaierako Lanen Programako emaitzak onak izan direla ikasle partaideen sentsibilizazio eta elkartasunezko jarreran izan duten bultzadaren ikuspegitik, eta, era berean, ikusi da UPV/EHUko ikasleek gero eta interes handiagoa dutela mota honetako praktikak egiteko. Horrela, bada, abian jarri zenetik, 11 deialdi egin dira eta **unibertsitateko 14 ikastegitako 772 ikaslek hartu dute parte. Ikasle horiek** Latinoamerikako, Afrikako eta Asiako **23 herrialde**etara joan dira proiektu honetako praktikak egitera, eta hogeita hamar bat izan dira finantziazioan lagundu duten elkartasun erakundeak.

11. deialdian (2013/14) **73 ikaslek** hartu dute parte. Ikasle horiek Latinoamerika, Afrika eta Asiako **14 herrialde**etara joan dira proiektu honen babesean praktikak egitera edo gradu amaierako lana osatzera.

1.1.- Garapenerako lankidetzako proiektuetako praktikak eta GRAL egiteko programan parte hartu duten ikasleak sexuaren arabera banatuta 2013/14 ikasturtea

	2013/14	%
Ikasleak	73	%100
Emakumezkoak	64	%87,67
Gizonezkoak	9	%12,33

Aipatzekoa da partaide gehienak, %87tik gora, emakumezkoak izan direla.

1.2.- Garapenerako lankidetzako proiektuetako praktikak eta GRAL egiteko programako herrialdeak 2013/14 ikasturtea

HERRIALDEA	IKASLE KOP.
Argentina	4
Benin	1
Bolivia	4
Ekvador	21
El Salvador	1
Etiopia	4
Indonesia	1
Mexiko	1
Mozanbike	4
Nikaragua	7
Peru	16
Dominikar Errep.	5
Senegal	2
Venezuela	2
GUZTIRA	73

1.3.- Ikasleak unibertsitateko ikastegi eta campusaren arabera (2013/14)

IKASTEGIA	IKASLE KOP.	ERAKUNDE LANKIDEA	HERRIALDEA
ARABAKO CAMPUSA			
Irakasleen eskola	8	DIPEI (8)	Ekuador(8)
Gizarte langintza	7	PIES por la Tierra(2) Fundación Gerencia Comunitaria(2) Haurralde (2) Alcaldia de Nejapa(1)	Argentina (2) Venezuela(2) Nikaragua(2) El Salvador (1)
BIZKAIKO CAMPUSA			
Irakasleen eskola	11	San Viator (4) Solidaridad Internacional (4) Haurralde (2) Fundación Mahatma Gandhi (1)	Peru (4) Nikaragua (2) Senegal(2) Nikaragua (2) Dominikar Errep. (1)
Bilboko Ingeniarien GET	1	Mugarik Gabeko Ingeniaritzak(1)	Mexiko(1)
GIPUZKOAKO CAMPUSA			
Erizaintzako	1	Medicus Mundi (1)	Peru (1)
FGZF	7	Activas por un mundo solidario (3) Haurralde (1) Bidez Bide(1) Juventud con una Misión (1) DIPEI (1)	Nikaragua (3) Ekuador(1) Ekuatore Ginea(1) Peru (1) Mozañbik (1)
Psicologia	12	Haurralde (12)	Bolivia (4) Argentina (2) Peru (3) Mozañbik (3)
Irakasleen eskola	22	Haurralde (9) Etiopia Utopia(1) DIPEI (10) Etiopia Fundazioas Tikal(2)	Dominikar Errep. (4) Mozañbik (1) Peru (4) Etiopia(3) Ekuador(10)
E.T.S.Arquitectura	1	Asoc.Manuel Iradier(1)	Benin(1)
Politeknikoa	3	Mugarik Gabeko Ingeniaritzak(1) Lankidetzarako Ingenieritza(1) Desarrollo Compatible(1)	Nikaragua (1) Indonesia(1) Etiopia(1)
GUZTIRA	73		

PRAKTIKA ETA GRADU AMAIERAKO LANEN PROGRAMAKO emaitzarik aipagarrienak:

- ✚ Ikasleek pobreziaren eta iparralde-hegoalde desberdintasunen arrazoi posibleen kontzientziazio lan bat egiteko aukera izaten dute, programaren helburuak betez, ikasleek igorritako txostenek adierazten duten moduan. Ikasleek balio berezia ematen diote beste kultura batzuetatik ikasteko aukerari eta beren testuingurutik horren urrun dauden egoeretan moldatu behar izateak dakarren erronkari.
- ✚ Ikasle askok, Euskal Herrira itzulitakoan, praktikak egin dituzten komunitateekin egindako harremanei beren horretan eusteko gogoia adierazten dute. Hori dela eta, kasu batzuetan GGKEan laguntzen jarraitzen dute, eta, beste batzuetan, solidaritate eta/edo lankidetzaren espazio berriak sortzen dituzte.
- ✚ Praktikan dauden ikasleak UPV/EHUren eta xede herrialdeen arteko harremanerako lotura bihurtzen dira, Unibertsitatearen eta xede hezkuntza erakundearen artean harremanak ezartzen baitituzte. Harreman horiek ezagutza eta lankidetzaren prozesu zabalagoak jartzen dituzte martxan.

Programa indartuko duten lankidetzaren bide berriak, ikastegiak partaidetza aktiboa badaukate...

Aipamen berezia merezi du **Kultura Arteko Hezkuntza Elebidunarekiko Unibertsitate Arteko Lankidetzaren Programak**, Arabako Foru Aldundiaren diru laguntzarekin egindakoak. Izan ere, UPV/EHUren berezko programa denez, hainbat jarduketa ildo garatzen ditu irakaskuntzaren, ikerketaren eta aholkularitza teknikopedagogikoaren arloetan. Proiektu honen buru Gasteizko Irakasleen UE da eta gainontzeko irakasle eskoletako eta Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakasleek ere hartzen dute parte, eta hainbat eta hainbat ikasleren praktikak bideratzen dituzte.

Gainera, aipatzeko da ikastegietan bide berriak ari direla aztertzen beste erakundeekin batera, hau da, lanean ari dira lankidetzaren hitzarmenak zuzenean egiteko kasuan kasuko herrialdean lankidetzaren proiektua gestionatzen duen erakundearekin.

Helburua hori izanik, praktikumeko zenbait arduradun badira lanean eta herrialdera bera joan dira; bulegoak, bere aldetik, bidaietarako laguntza ematen die ekimen horretan parte hartzen duten bi irakasleri. 2013/14 ikasturtean ondokoak izan dira programa horren barruan bidaietarako laguntza hartu duten irakasleak: Bittor Gonzalez (Farmazia F.), Mozanbikera joan zen; Estibaliz Jz de Aberasturi (Donostiako Irakasleen UE).

Azken balorazioa:

- ✚ Ikastegi gehiago beren ikasketa planean garapenerako lankidetzako praktikum sartzeko (adibidez: Farmazia Fakultatea eta Arkitektura Goi Eskola Teknikoa). Ikastegi horiek programarekin bat eginda, indartu egin da titulazio teknikoetako ikasleen parte hartze eta Gradu Amaierako Lan gehiago egin dira arlo horretan.
- ✚ Nazioarteko eta tokiko elkartasun jarduerak gehiago, ikasleei kredituak aitortuta.
- ✚ Praktikumeko arduradunek gero prestakuntza hobea dute eta sentibilizatuago daude, eta proiektuetarako proposamen gehiago daude, unibertsitateko kideen inplikazioa gero handiagoa da, batez ere irakasle eta ikertzaileena.
- ✚ Gizarte eragileekin harreman estuagoa eta guztien artean egindako gogoeta, horren bidez unibertsitatearen partaidetza hobetzeko lankidetzaren eragile legez.

- ✚ Gradu Amaierako Lanak, nahitaezkoa izanik titulazioa guztietan, lanerako arlo berriak eskaintzen ditu.
- ✚ Zenbait hutsune ere antzeman ditugu: programaren ebaluazio orokorra, kontuak ematea eta eskerrak ematea eragileei.